


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, askotan jendeak giltzak galdu edo etxean non utzi dituen ez jakitea gertatzen da. Egoera horrek estresa eta denbora galtzea eragiten du, eta askotan etxetik atera aurretik giltzak bilatzen minutu asko galtzen dira. Gainera, autoaren edo etxeko giltzak galtzeak gastu handiak ere ekar ditzake, kopiak egin behar direlako edo sarrailek aldatzera jo behar delako. Arazo ohiko honek eguneroko bizitza zaildu egiten du, eta askotan ez da konponbide errazik izaten.



Horregatik, gure taldeak giltzatako lokalizatzaille bat garatu du, giltzak galtzen direnean azkar aurkitzeko balio duena.



Produktua oso erabilgarria da, mugikorreko aplikazio simple baten bidez erabiltzaileak bere giltzak uneoro non dauden jakin dezakeelako. Aplikazioak giltzen kokapena maparen bidez erakusten du.

Gainera, gure giltzatako lokalizatzailleak bestelako abantaila batzuk ere baditu. Batetik, diseinu modernoa du, edozein giltzategitan erraz txertatzeko modukoa. Bestetik, bateria luzeko sistema dauka, aste edo hilabete askotan irauten duena kargatu beharrik gabe. Produktua, gainera, material erresistente eta birziklagarritz eginda dago, ingurunea hainbeste ez kutsatzeko.

Merkatuan antzeko produktuak daude, baina gure proposamenaren berezitasuna prezio eskuragarria izatea da. Bezeroek hainbat kolore eta diseinu aukeratu ditzakete. Gure helburua pertsonen segurtasuna eta lasaitasun handiago bat ematea da, beren giltzak beti kontrolpean edukitzeko aukera eskainiz.

Horrela, giltzak galtzearen arazoa konpontzen dugu eta egunerokotasuna errazagoa egiten dugu.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Grandado. (s. f.). *Llavero inalámbrico con localizador de llaves por silbido para hombres y mujeres: dispositivo antipérdida*. Grandado.

<https://esp.grandado.com/products/llavero-inalambrico-con-localizador-de-llaves-por-silbido-para-hombres-y-mujeres-dispositivo-antiperdida-llavero-electronico-antirrobo-con-clave-de-plastico-elipse>

Ricca, P. (2025, abenduaren 20a). *Llevo años usando Google Maps para guiarme a pie y no conocía este atajo para hacer zoom: ahora puedo usar el móvil con una mano*. Xataka Móvil.

<https://www.xatakamovil.com/aplicaciones/llevo-anos-usando-google-maps-para-guiarme-a-pie-no-conocia-este-atajo-para-hacer-zoom-ahora-puedo-usar-movil-mano>